

Bilbon, 1996ko maiatzaren 31an
Ageriko batzarra

Haritschelhar, J., euskaltzainburua
Lekuona, J.M., euskaltzainburuordea
Knörr, E., idazkaria
Arana, J.A., diruzaina
Altuna, P.
Azkarate, M.
Charriton, P.
Davant, J.L.
Goenaga, P.
Irigoyen, A.
Kintana, X.
Krutwig, F.
Larre, E.
Oihartzabal, B.
Ondarra, P.
Peillen, Tx.
San Martin, J.
Villasante, L.
Pujana, P.
Altzibar, X.
Amundarain, D.
Aranburu, A.
Aranburu, X.
Arejita, A.
Arrieta, J.A.
Aulestia, G.
Aurrekoetxea, G.
Badiola, R.
Baraiazarra, L.
Bachoc, E.
Bjguri, K.
Butron, J.
Eguzkitza, A.
Etxebarria, I.
Etxeberria, P.
Etxezarreta, J.M.
Gaminde, I.

Bilbon, Plaza Barriko egoitzan, 1996ko maiatzaren 31an, arratsaldeko lau eta erditan, bildu da Euskaltzaindia. Aldamean aipatzen diren euskaltzain oso, oho-rezko eta urgazleak etorri dira. Ezin etorria X. Diharcek eta J.M. Satrustegik adierazi dute.

Batzarra beterik zegoen beheko aretoan egin da. Euskaltzainez gain, urgazle berrien senide eta adiskide asko ziren. J. Angel Etxebarria urgazle zenduaren alarguna eta alaba ere etorri dira.

Batzarrari hasiera emanez, goizekoaren berri eman du idazkariak.

Gero, azken hilabeteetan hildako kideez txosten batzuk irakurri dira: Santiago Onaindiaz (Juan San Martinek eta Juan M. Lekuonak), J. Angel Etxebarriaz (Jose A. Aranak) eta J. Antonio Arkotxaz (Juan San Martinek).

Ondoren, Jean Haritschelharrek berriki izendaturiko urgazleak agurtu ditu eta Euskaltzaindiaren Barne-erregelek haien eskubide-eginbideez diotena irakurri.

Akademiaren lanetan gogatsu parte hartzea edo jarraitzea eskatu die guztiei, euskararen onetan.

Azkenik, banan-banan eman zaie bertaratu diren urgazle berri guztiei beren diploma.

Natela Sturua eta Salome Gabunia ezin etorririk, gutun bat igorri dute Euskaltzaindira, X. Kintanak irakurri duena. Honela dio:

García Trujillo, S.
 Gereño, X.
 Goikoetxea, J.L.
 Gorrotxategi, M.
 Irigoien, J.M.
 Kaltzakorta, X.
 Kortazar, J.
 Lizundia, J.L.
 Oleaga, J.
 Oñederra, L.
 Perurena, P.
 Retolaza, J.A.
 Rotaetxe, K.
 Salaberri, P.
 Toledo, A.M.
 Uribarren, P.
 Zearreta, J.J.
 Zuazo, K.
 Zubimendi, J.R.

“Euskaltzainburu jauna, jaun-andre euskaltzainok, agur guztioi: Albiste pozgarria heldu zaigu zuengandik. Euskaltzain urgazle izendatu gaituzue. Hori ohore handia da guretzat, eta gure Herriarentzat ere bai. Mila esker bihotzez. Izendaketa horren agiriak hartzeko inbitazioa hartu dugu. Zoritxarrez, gu ezin gara joan Euskal Herrira agiri horiek gure eskuz hartzera. Gure ordez Xabier Kintana euskaltzainak hartuko ditu, bera modu batean georgiarra ere delako. Halaber, berak irakurriko du gure eskerroneko gutuna. Euskaldunen eta georgiarren arteko anaitasuna indartzen saiatuko gara beti gure lan eta indar guztiekin.

Geogieraz ere, euskararaen hizkuntza anaiaz, hitz batzuk esango dizkizuegu:

“Euskaltzainburu jauna, jaun-andre euskaltzainok, agur guztioi:

Albiste pozgarria heldu zaigu zuengandik, Euskaltzain urgazle izendatu gaituzue. Hori ohore handia da guretzat, eta Georgiako Herriarentzat ere bai. Mila esker, bihotz bihotzez.

Izendaketa horren agiriak hartzeko inbitazioa hartu dugu. Zoritxarrez gu ezin gara joan Euskal Herrira agiri horiek gure eskuz hartzera. Gure ordez Xabier Kintana euskaltzainak hartuko ditu, bera modu batean georgiarra ere delako. Halaber, berak irakurriko du gure eskerroneko gutuna. Euskaldunen eta georgiarren arteko anaitasuna indartzen saiatuko gara beti gure lan eta indar guztiekin.

Geogieraz ere, euskararen hizkuntza anaiaz, hitz batzuk esango dizkizuegu:

ბატონო პრეზიდენტო, ბასკური ენის სამეფო
 აკადემიის წევრებო, დიდ მადლობას მოგახსენებთ ჩვენნი
 მოკრძალებული წვლილის დაფასებისთვის.

bat'ono prezident'o, bask'uri enis samepo ak'ademiis c'evrebo, did madlobas mogaxsenebt čveni mok'rdzalebuli c'vilis dapasebistvis.

Haritschelhar jauna, Euskaltzaindiaren burua, euskaltzainok, bihotzez eta arimaz, eskerrik asko guztiei”.

1996.eko maiatzaren 31ean

Salome Gabunia (Ingolstadt, Alemania) eta Natela Sturua (Washington, Estatu Batuak)

Eta besterik gabe, bukatu du batzarra.

Jean Haritschelhar,
euskaltzainburua

Endrike Knörr,
idazkaria